

Jendurreko ahozko aurkezpenen lanketa Unibertsitatean

Sekuentzia Didaktiko eta praktika gogoetatsuaren bidez

(Working on Oral Presentations at University by Means of the Didactic Sequence and Reflective Practice)

Garro, Eneritz¹; Pérez Lizarralde, Karmele²; Azpeitia, Agurtzane³; Irizar, Asier⁴

Mondragon Unib. HUHEZI Fak. Dorleta, z/g. 20540 Eskoriatza

¹ egarro@mondragon.edu, ² kperez@mondragon.edu,

³ aazpeitia@mondragon.edu, ⁴ airizar@mondragon.edu

Jaso: 27.12.2011

BIBLID [ISSN: 1137-4446, eISSN: 2255-1069 (2012), 18; 195-219] Onartu: 06.11.2012

Artikulu honetan unibertsitatean ahozko aurkezpen formalak lantzeko esperientzi didaktiko baten berri ematen da. Lanketa hori egiteko dispositibo didaktikoa bi ardatzen inguruan gorpuzten da: Sekuentzia Didaktikoa (Dolz eta Schneuwly, 1998) eta praktika gogoetatsua (Esteve, 2009). Batetik, deskribatuko da nola antolatzen eta lantzen diren ikasleen aurretestuetatik abiatuta identifikaturiko ikasketa-gaiak; bestetik, erabiltzen diren tresnen (txantilo, errubrika...) berri emango da; bukatzeko, esperientzia ebaluatuko da aurretestu eta ondotestuen azterketaren bidez.

Giltza-Hitzak: Ahozko aurkezpen formala. Sekuentzia didaktikoa. Praktika gogoetatsua. Tresna didaktikoak.

En este artículo se presenta una experiencia didáctica centrada en la exposición oral formal en la universidad. El dispositivo didáctico diseñado e implementado al efecto se materializó en torno a dos ejes: la Secuencia Didáctica (Dolz y Schneuwly, 1998) y la práctica reflexiva (Esteve, 2009). Por un lado, en el artículo, se describe cómo se organizaron y trabajaron las dimensiones de aprendizaje que se identificaron en los pre-textos del alumnado; por otro lado, se presentan las herramientas (plantillas, rúbricas...) utilizadas en el proceso; y por último, se evalúa la experiencia analizando los pre-textos y los post-textos.

Palabras Clave: Exposición oral formal. Secuencia didáctica. Práctica reflexiva. Herramientas didácticas.

Cet article présente une expérience didactique sur l'exposé oral à l'Université. Le dispositif didactique conçu et mis en œuvre à l'effet s'est concrétisé autour de deux axes: la séquence didactique (Dolz et Schneuwly, 1998) et la pratique réflexive (Esteve, 2009). D'une part, nous décrivons comment ils ont été organisés et travaillés les dimensions d'apprentissage identifiés dans les prétextes des étudiants; d'une autre part, nous présentons les outils (grilles, catégories...) utilisés dans le processus; et pour finir, nous évaluons l'expérience analysant les productions initiales et les productions finales.

Mots-Clés: Exposé oral. Séquence didactique. Pratique réflexive. Outils didactiques.

1. SARRERA

Egungo gizartean garrantzitsua da komunikatzaile ona izatea, alegia, eskatzen da idatziz zein ahoz ongi moldatzea eta hobesten dira, egoera formal zein ez formaletan, hizkuntza kalitatez erabiltzen duten herritarrak. Hala, hezkuntza sistemari eskatzen zaio ikasleek komunikazio gaitasunak garatzea, eta horretarako askotariko komunikazio egoerak identifikatu eta horietan behar bezala erantzuteko baliabideak eskaini behar zaizkie ikasleei, langai dira baliabide linguistiko-diskurtsiboak, jarrerak, edukiak, eta abar. Unibertsitateari dagokio lan horretan sakontzea eta formatzen dituen profesionalak komunikatzaile on izan daitezen bermatzea.

Unibertsitate ereduaren aldaketak ekarri du ikasleek talde txikitan zein talde handian hartu behar izatea hitza, besteak beste, eztabaidatzeko, azaltzeko edota elkarriketatzeko. Oinarrian, uste baita hitza erabili behar dela ezagutzak erakitzeke, hitzaren bidez ikasleek barneratuko eta eraikiko dituztela ezagutza berriak. Ahozkoa da, hortaz, ikaskuntzaren oinarrietariko bat. Hala ere, etengabe ahoz jardute hori ikasle askorentzat erronka da euren ikasteko moduan berria izan daitekeen heinean. Gainera, gogoan izan behar da gutxi gorabehera ikasle en erdiarentzat euskara gehienbat eskola hizkuntza izan dela eta euren testu-in-guru hurbilean euskararen presentzia ez dela ohikoa.

Baina, zein ahozko landu behar da unibertsitatean? Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Graduetarako hizkuntza plangintza diseinatzerakoan, abiapuntua izan da identifikatzea zeintzuk diren ikasleek unibertsitatean zein euren lanbidean hizkuntza egoki erabiltzeko garatu beharreko ahozko komunikazio kompetentziak. Horretarako, ikasle zein irakasle profilak aztertu eta hainbat egoera identifikatu dira, zeintzuetan ahozko hizkuntza bereziki garrantzitsua den. Hona hemen egoera horietariko batzuk:

- Ikasle rolean: lanen ahozko aurkezpenak, talde-eztabaida saioak, informazioa biltzeko elkarriketak...
- Irakasle rolean: gela barruan eman beharreko azalpenak, ikasleekin izango dituzten elkarrekintzak, ipuin kontaketak, guraso-bilerak, gurasoekin elkarriketak, lankideekin bilerak...

Profil horien azterketatik abiatuta, ikasleek haienganatu beharreko zenbait testu-genero aukeratu dira berariaz lantzeko, eta horietako bat da ahozko aurkezpena. Ahozko aurkezpenen lanketa bi oinarritan funtsatu da: Sekuentzia Didaktikoan (Dolz eta Schneuwly, 1998) eta praktika gogoetatsuan (Esteve, 2009).

Hori azaltzeko, artikulua lau atal nagusitan banatua dago: lehenengoan, ahozko aurkezpenen ezaugarritze labur bat egiten da genero horren lanketaren begiradatik; bigarrenean, ahozko aurkezpenen lanketarako oinarri didaktikoak azaltzen dira, batetik Sekuentzia Didaktikoa eta bestetik praktika gogoetatsua; hirugarrenean, unibertsitatean garatutako lanketaren xehetasunak eskaintzen dira; eta laugarrenean, esperientziaren ebaluazioa egiten da.

2. JENDAURREKO AHOZKO AURKEZPENAK

Jakin badakigu ahozko aurkezpenak egiteak tradizio luzea duela irakaskuntzan. Halere, Dolz eta Schneuwly autoreen esanetan (1998), gehienetan benetako lan didaktikorik gabe egin dira, azalpenaren egituratze linguistikoa eta estrategia zehatzak gelan berariaz landu gabe eta ebaluazio espezifikorik gabe. Autore horien aburuz, azalpenak jarraitzen du izaten jarduera oso tradizionala, baina horren helburu pedagogiko bakarra beste ikasleen aurrean ikasitako ezagutzen berri ematea da, eta ez dago laguntza berezirik horiek prestatzeko.

Ahozko aurkezpen formalak egitea ohikoa da, oro har, unibertsitateko ikasleentzat ere, ikasleek hainbat materiatan aurkeztu behar izaten dituzte euren lanak ahoz, batzuetan talde txikitan eta beste batzuetan bakarka, eta horrek eskatzen du testu-genero hori berariaz eta modu sistematikoan lantzea. Dolz eta Gagnonek (2008) dioten moduan, genero bat denboran zehar finkaturiko, metaturiko eta egonkorturiko konfigurazio linguistikoen emaitza da. Generoaren modelo didaktikoa egiten dugularik, identifikatuko ditugu genero horren baitan irakasgarriak diren alderdiak eta horiek irakasteko baliabide didaktikoak sortuko ditugu (kasu honetan, SD). Generoa, gure kasuan jendaurreko ahozko aurkezpena, ongi ezagutzeak erraztu egingo du ikasleen ezagutzak ebaluatzea edota SD eta haren baitako tailerrak diseinatzea.

Lehenik eta behin, esan behar da Bajtinen (1995) sailkapenaren arabera jendaurreko ahozko aurkezpena bigarren mailako generoa dela, hau da, baldintzapean sortzen da eta zientzia edota kulturazko giza-ekintzaren ondorio da. Lehen mailako generoak (egunerokotasunean eta egoera ez formaletan gauzatzen direnak) ez bezala, bigarren mailako generoak ikaskuntza eta arau zein forma batzuen barneratze prozesu baten emaitza dira. Hau da, hiztunak ezagutu eta ikasi egin behar du bigarren mailako genero horrek zein ezaugarri linguistiko-diskurtsibo dituen, zein egoeratan erabili ahal den, zein baliabide berbal eta ez berbal abiarazten dituen, eta abar. Hala, jendaurrean azalpen bat egin behar dela esaten denean, hiztunak izan behar du hizkuntza-ekintza horren irudi bat, praktika batzuk erreferentzia gisa hartzen dituenak. Erreferentziazko praktika horietan oinarriturik eraikiko da, hain zuzen ere, modelo didaktikoa. Jendaurreko ahozko aurkezpenei dagokienez, modelo didaktikoa eraikitzeak kontuan izan dugu Dolz eta Schneuwlyk egiten duten ahozko azalpenen definizioa:

Un genre textuel public, relativement formel et spécifique, dans lequel un exposant expert s'adresse à un auditoire, d'une manière (explicitement) structurée, pour lui transmettre des informations, lui décrire ou lui expliquer quelque chose. Dans une perspective d'enseignement, où il s'agit de construire un objet enseignable, c'est sur ces caractéristiques que nous nous appuyons pour définir des objectifs et élaborer des modalités d'intervention. (Dolz eta Schneuwly, 1998:143)

Beraz, jendaurreko hizkuntza-ekintza izatea, egitura finko bat izatea eta hizlariak "adituaren" rola hartzea dira irakasgai dugun testu-generoari dagozkion hiru ezaugarri garrantzitsu. Ildo beretik, Garcia Azkoagak zera azpimarratzen du:

Azalpen testuaren xede nagusia jakintzen edo ezagutzen transmisioa da, baina edukiak bezain garrantzitsuak dira jakintza horien komunikazioari inguratzen dizkieten baldintzak, beste era batera esanda, mintzajardun hori zein ekoizpen-egoeratan gauzatzen den, gaia nolako den, nori zuzendua dagoen, noiz eta nola egingo den azalpena, edukiak nola egituratu, baliabide lexikoak eta diskurtsiboak nola erabili... (Garcia-Azkoaga, 2008:182)

Jendaurreko ahozko azalpenak lantzerakoan genero horren hainbat alderdi izan behar dira kontuan:

- Arestian esan dugunez, Bajtinen (1995) genero banaketaren arabera, bigarren mailako generoa da eta, beraz, formala. Hizlariak formaltasun horri erantzun beharko dio hainbat modutara: berbazko zein ez berbazko baliabideetan, edukien aukeraketan eta garapenean, euskarrien erabileran, hizkuntza erregistroaren erabileran, etab. Martinezek (2004) aipatzen du ahozko azalpena eremu akademikoari dagokion generoa dela (berak bigarren hezkuntzari erreferentzia egiten dio) eta eskolako egoeretan izango dutela ikasleek azalpen onak entzun eta ekoizteko aukera. Hau da, jendaurreko ahozko azalpenak neurri handi baten egoera akademiko horretan sortu eta jasotzen dira, eta egoera akademiko hori da ekoizpenaren esparru soziala. Dolz eta Schnewlyk (1998) komunikazio-egoera bipolarraz hitz egiten dute, non elkartzen diren hizlaria eta bere entzuleria. Bi agenteak banatzen ditu gaiari buruz duten ezagutzak, hizlaria definizioz da “aditua” eta entzulea ikasteko gertu dago. Modu horretan, enuntziatzaileak bere diskurtsoarekin alde hori gutxitzen du. Bere hizkuntza-ekintzan hizlariak entzulea kontuan hartzen du eta irudikatzen du zer dakien eta zer ez, zein interes dituen eta ulertzen ote duen.
- Genero monogestionatua da, hau da, hizlariak kontrolatzen du berbaldia, berak erabakitzen du noiz eta nola hasi edo bukatu, entzuleei hitza eman ala ez, informazioaren antolaketa nolakoa izan behar den, eta abar. Dolz eta Schnewlyk (1998) dioten moduan genero monogestionatuek eskatzen dute testuaren ekoizpenaren kontrola izatea eta testu-generoaren ezaugarriak zein baliabide linguistikoak ezagutzea. Modu horretako ekoizpenak luzeak izan ohi dira eta horrek eskatzen du hizlariaren aldetik bere berbaldiarekiko kontrol handia. Halaber, ulermena ziurtatzea ere hizlariari dagokio; idatzian neurri batean irakurleak dauka edukia ulertzeko betebeharra eta horretarako testuan aurrera eta atzera egin ahal izango du, informazio osagarria bilatu, ondokoei galdetu... Ahozkoan, aldiz, jardunaren unean uneko izaerak hizlariaren gain jartzen du ardura hori eta horrek testuaren antolaketari eragiten dio, hizlariak hainbat baliabideren bidez ziurtatu beharko baitu ulermena: galdera erretorikoak, ulermena ziurtatzeko galderak, adibidetzeak, errepikapenak, birformulazioak, eta abar eginez.
- Idatzizko euskarri bat izan ohi du oinarri. Schnewlyk (2008) gogoratzen duen moduan, esan behar dena ez da *hic et nunc*, hemen eta orain, osatzen; prestaketa-lan luze eta sakona izan ohi du. Jendaurreko ahozko aurkezpenaren prestaketa gehienetan idatziz eta ohar-gidoi bat osatuz egiten da. Goffmanek (1987, Garcia Azkoaga 2008tik jaso) hiru modu aipatzen

ditu idatzizko euskarri hori ahozkoa ekartzeko: prestatutakoa buruz ikastea, prestatutakoa ozen irakurtzea eta berezko hizketan jardutea. Goffman berak hirugarren modu hori “ideal orokortzat” jotzen badu ere, Dolz eta Schneuwlyk (1998) hiru produkzio-moduak berariaz landu beharra azpimarratzen dute. Memorizazioa lotzen dute antzerki eta poesiarekin, eta irakurtzea, konferentziarekin. Didaktikoki zentzuzko ikusten dute ikasleek irakurri gabeko aurkezpenak eraikitzea idatzizko euskarrien gainean: oharra, grafikoak, zitak, gako-hitzak, diskurtsoaren egitura gogoraziko duten markatzaileak... eta irakurri ahal dira aipu esanguratsuak edukiarekin edo egiturekin lotuta (hasteko, ondorioei sarrera egiteko, eta abar).

- Egitura finkoa izan ohi du: sarrera, gaiaren garapena edo mamia eta bukera. Sarreran hizlaria eta gaia aurkeztu ohi dira, baita hizketaldiaren nondik norakoak (hitzaldiaren plana) argitu ere. Halaber, Gartziaren (2008) esanetan diskurtso baten hasierak hiru helburu bete behar ditu: entzuleriaren arreta erakartzea, entzuleengan diskurtsoan aurrera egiteko gogoia piztea eta hori guztia entzuleek hizlariaren aldeko jarrerarekin egin dezatela. Gaiaren garapenean edo mamian, eman beharreko informazioa edo edukiak garatzen dira, normalean gai nagusien eta horien garapenaren bidez. Bukeraren, ideia nagusiak laburbildu eta agurra bideratzen da; une horretan eskaini ohi zaio entzuleari galderak edota iradokizunak egiteko aukera.
- Ahozko azalpenetan, bereziki gaiaren garapena edo mamiari dagokion atalean, garrantzitsua da testuaren garapena nola egiten den. Hala, Dolz eta Schneuwlyk (1998) autoreek dioten moduan ahozko azalpena lantzerakoan kontuan izan beharreko alderdia da gaia nola aurkezten den eta nola mantentzen den. Horretarako erabiliko dira, besteak beste, metadiskurtso baliabideak (*X aurkeztuko dugu, Xi buruz esan behar da, definizioari dagokionez, hirugarren atalean X landuko dugu...*), birformulatzailak edo zehaztaileak (*lehen esan bezala, zehatzago azalduz, beste hitz batzuekin azalduko dut...*); edo galderak (*zer da X? X da...; zer esan nahi du Xek? ba...*). Gainera, beharrezkoa da gaien arteko bereizketa egitea eta oinarrizko informazioa eta bigarren mailakoa bereiztea, entzuleari argi uzteko zein den gorde beharreko informazioa, eta horretarako erabili ohi dira honelako baliabideak: *ideia garrantzitsua da, azpimarratu behar da, gogoa hartzeko modukoa da...* Ideia horien garapenean adibidetzea ere estrategia garrantzitsua da eta, horretarako, *adibidez, hala nola, adibide batekin argiago ikusteko, honen inguruko esanplu bat emango dugu...* moduko elementuak erabiltzen dira.
- Aurrez prestatua izan arren, gehienetan idatzizko euskarri batekin, azalpena jarioan ekoiztu ohi da eta horrek esan nahi du ahozko modalitateari dagokion hainbat ezaugarri izango dituela; izan ere, Larringan eta Idiazabalek (2008) edota Alegriak (2009) dioten moduan, ahozko hizkuntzak baditu berezko ezaugarri batzuk idatziarekin alderatuz. Ahozkoan gehiago “huts” egiten da eta horrek eskatzen dio hiztunari mezua luzatuz “zuzentzea”, berresanez, desenkusatzuz...; errepikapen eta erredundantzia gehiago dago; elementu betegarriak erabiltzen dira, batzuetan denbora irabazteko, bestetan helburu diskurtsiboarekin; dentsitate lexikoa txikiagoa da

eta ohikoagoak dira *gauza, kontu...* moduko hitzak; egitura koordinatuak gehiago erabiltzen dira menpekoak baino; eta abar. Ahozkoaren berezko ezaugarri horiek kontuan hartu beharko dira, besteak beste, ebaluaziorako garaian, idatziari aplikaturiko irizpideek ez baitute balio ahozko ekoizpenen “zuzentasuna” neurtzeko. Alegriak (2009: 782) dioten ildotik, “*Ez dago ekoizpenak epaitzeko balio digun aurrez zehaztutako markorik eta gramatikaltasun eta onargarritasun kontzeptuak, berriz, unean uneko komunikazio-baldintza eta egoeren menpe daude*”.

- Alegriak (2009) dio ahozko modalitatean mezua hainbat kanalen bitartez helarazten dela, eta hitzez gainera, komunikazioan begiradak, keinuak, inpresioak... elkartrukatzen direla; modu horretan, hizkuntzazko elementuek bezainbesteko garrantzia hartzen dute elementu prosodikoek, paralinguistikoek, kinesikoek eta proxemikoek. Calsamiglia eta Tusónek (1999) elementu horiek deskribatzen dituzte eta horien artean bereizten dituzte elementu paraberbalak eta ez berbalak. Elementu paraberbaletan bi multzo egiten dira: ahotsa eta bokalizazioak. Ahotsaren izaerak, ozentasunak edota tinbreak hiztunaren ezaugarri edota egoera orokorraren berri eman-godigute; bokalizazioak, aldiz, “hitzak” ez diren soinu edo zaratak dira (barreak, hasperenak, desadostasun soinuak, eztulak, onomatopeiak, eta abar) eta helburu komunikatiboa izan dezakete. Elementu ez berbaletan leudeke, besteak beste, gorputzaren eta begiradaren erabilera, espazioaren antolaketa, argiztapena, jantziak. Horiei erreparatzea eta horien balio komunikatiboaz jabetzea ere garrantzitsua da.

3. OINARRI DIDAKTIKOAK: SEKUENTZIA DIDAKTIKOA ETA GOGOETA

Aztergai dugun corpuseko jendaurreko ahozko aurkezpen formalen lanketa bi ardatzetan oinarritu da: SDaren erabilera ahozko azalpen testuaren lanketarako tresna gisa (Dolz eta Schnewly, 1998) eta praktika gogoetatsua autokonfrontazio eta autoerregulazio tresna sistematiko gisa (Esteve, 2009).


3.1. Sekuentzia Didaktikoa

SDa diseinatzerakoan Genevako eskolak testu-generoen lanketarako proposaturiko tresna hartu da abiapuntutzat. Dolz eta Schnewlyk (1998) dioten haritik, SDa diseinatzerakoan bi alderdi izan behar dira kontuan: batetik, testu-generoaren lanketa komunikazioaren ikuspegitik egin behar dela, egoera ahalik eta errealean aurreikusiz, ikasleek testu-genero bat ekoizten ikasiko baitute baldin eta testu-genero hori ekoiztu behar badute; eta bestetik, testu-generoa ikasteko eta irakasteko objektu gisa landu behar dela, eta horretarako, ikasleek testu-generoaren egitura, ezaugarriak, beharrezko baliabideak, eta abar behatu, aztertu eta erabili beharko dituzte.

SD baten helburua da ikaslearentzat zaila den eginkizun komunikatibo bat (kasu honetan jendaurreko ahozko aurkezpen formal bat egitea) zatitu, atalkatu, eta zailtasun horien lanketa espezifikoa eginez tresnak, baliabideak eskaintzea


eginkizun konplexu horri erantzun ahal izateko, Dolz eta Schenuwlyren hitzetan, “*Las actividades comunicativas complejas que los alumnos todavía no son capaces de realizar de forma autónoma son descompuestas para permitirles abordar de una en una aquellas que les supongan un problema*” (1997:85). Modu horretan, ikasleari eskaintzen zaizkio konplexutasunari erantzuteko tresnak, testu-generoaren ezaugarriak atalka landuz. Testu-generoa erdigunean dagoelarik, horren ezaugarritzetik abiatuta lanketa gaiak edo baliabideak identifikatzen dira, eredu didaktikoa egiten da, gero horien gaineko lanketa espezifiko diseinatzen. Dolz eta Gagnon (2008) esanetan, eredu didaktikoarekin irakasleak eskura izango ditu potentzialki langai diren alderdiak edo edukiak. Hona hemen bi autoreek ahozko testu-generoetan irakasgarri diren alderdiak identifikatzeko proposatzen dituzten multzoak:

1. irudia. Generoaren eredu didaktikoa, irakasgarri diren alderdiak (Dolz eta Gagnon, 2008)



Alderdi horiek guztiak didaktifikatzeko SDeK ondoko egitura izan ohi dute:

2. irudia. SDren egitura (Dolz eta Schenuwly, 1998:94)



Hona hemen elementu horiek banan-banan zehaztuta:

- Proiektua aurkezterakoan ikasleek SDaren helburuak eta azken xedea zein diren ezagutuko dute. Helburu horiek negoziatu eta adostu beharko dituzte irakasle eta ikasleek. Une horretan eman beharko zaio zentzua egingo den lanketari.
- Aurretestua: ikasleak aurretestuan egoera konplexu bati aurre egin beharrean jartzen dira (kasu honetan jendaurreko ahozko aurkezpen formala egin) eta irakasleak aukera izango du testu-genero horri dagokionez ikasleek duten gaitasun eta beharrianak identifikatzeko.
- Jarduera/tailleretan eredu didaktikoan irakasgarri gisa identifikaturiko alderdiak landuko dira. Helburua da tarteko jardueren bidez ikasleei egoera konplexu horietan zailtasunak sortzen dizkieten alderdiak (edukizkoak zein formazkoak) landu ahal izatea. Tailer horietan ikasleek askotariko jarduerak egin behar dituzte: entzun/ulertu, behatu, gogoeta egin, ekoiztu...
- Kontrol-zerrenda osatzen eta adosten joango dira ikasleak eta irakaslea SDn zehar; horrek lagunduko die ikasleei ondotestua ekoizten eta euren burua erregulatzen, eta irakasleari ebaluazioa sistematizatzen eta irizpideak argitzen.
- Ondotestuan ikasleek berriz ere egoera komunikatibo konplexu berari edota pareko bati erantzun beharko diote, baina oraingoan beharrezko baliabideak izango dituzte. Hala, ondotestuak eskainiko dio irakasleari, batetik, ikasleen garapena ebaluatzeko modua, eta bestetik, aurrera begira landu beharreko alderdiak identifikatzeko aukera.

SDan garrantzitsua den nozio bat erregulazioarena da. Sainz Osinagak (2002) dioenaren haritik, ikasleak ikuspuntu kritiko batetik begiratu behar du bere ekoizpena, baldin eta jarduera honetan dituen zailtasunak gainditu nahi baditu. Kontuan hartuta norberak bere jarduera autoerregulatzea ez dela erraza, SDetan bada tresna bat lan hori egiten laguntzen duena: kontrol-zerrendaz ari gara. Eta erregulazioaz ari garelarik, ezin ahaztu ahozko ekoizpenak berrikusi eta aztertzeko aukera. Hori egin nahi bada, ezinbestekoa da horiek bidez/udioz gordetzea, horrek emango baitu aukera berrikusi eta hobekuntza proposamenak egiteko, bai irakasleari eta bai ikasleari.

3.2. Praktika gogoetatsua autokonfrontaziorako eta autoerregulaziorako

Esan dugunez, SDarekin batera gogoeta sistematikoa eta antolatua da jendaurreko ahozko aurkezpenen lanketa proposamen honetan bigarren ardatza. Esteve eta Alsinak (2010) paradigma errealista aldarrikatzen dute egokien irakasleen gaitasun profesionalak modu esanguratsuan garatzeko, bai hasierako formazioan, bai eta formazio iraunkorrean ere. Formazio errealista deitzen diote honako planteamenduari, alegia, pertsona integratzen duena bere esperientzia pertsonalekin, ezagutza teorikoekin, irakasteaz eta ikasteaz dituen errepresentazioekin eta gelan ikasle moduan izan dituen esperientziekin, guztia gogoetaren bidez. Praktika da abiapuntua ikaskuntza profesionalerako eta ikaskuntza gogoetatsua da formazioaren printzipio orokorra. Autore horiek dioten ildotik, ikas-

kuntza gogoetatsu horrek baditu beste oinarri batzuk ere, besteak beste, Vigotskyren (1978) teoria soziokulturala, Shönen (1983) profesional gogoetatsua eta Freudentalen (1991) hezkuntzaren ikuspegi errealista. Hezkuntzaren ikuspegi errealista horrek zera dio, alegia, formatzen ari den pertsonak berak sortu behar duela irakaskuntza-praktikaren gaineko ezagutza, ezin dela izan aurretik beste inork sortutakoa eta emandakoa, hau da, formatzen ari den pertsona formatuko da eduki batzuei esanahia edo zentzua berorrek emanez, eta ez eduki horiek beste batek emandako zentzuaz jasota.

Gogoetaren bidez lan egiteko Estevek (2009) lau elementu giltza proposatzen ditu: esperientzietan oinarritutako lana, gogoeta modu sistematikoan egitea, egiazko interakzio eraikitzailea indartzea eta teoriarekin lanketa esanguratsua egitea. Modu horretan, praktika, gogoeta eta teoria elkarrekin harremanetan lantzea da helburua. Horrek eskatzen du ohikoa den teoriatik praktikara ibilbidea aldatzea eta teoria praktikan oinarritzea, ikasle bakoitzaren esperientzian.

Gogoeta prozesu hori hiru pausotan gertatzen da:

3. irudia. Gogoeta zikloa (Esteve, 2009)



Prozesu horretan ez da nahikoa praktikan oinarritze hutsa; izan ere, gogoeta eraginkorra izango bada, sistematikoa izan behar da, eta horretarako tresna espezifikoak beharko dira: galdetegiak, behaketa txantiloak, elkarrizketak... Puntu honetan, azpimarratu behar da ahozko berbaldien grabaketak duen garrantzia ikasketa gogoetatsua egin nahi bada. Ruiz Bikandik (2007) gogoratzen digun moduan, norberaren ekintza bidez grabatuz gero, azaleratzen dira ekintza hori egiten duen pertsonaren kontroletik kanpo dauden hainbat elementu. Ekintza egin delarik, egin dela pentsatzen denak eta ekintza horren bideo grabaketan ikusten denak ez dute zertan bat egin. Prozedura honek aukera emango dio ikasleari bere buruarekin autokonfrontatzeko, bere praktika kanpotik begiratzeko, aztertzeko eta landutako irizpideen arabera baita objektibatzeko ere.

Gogoeta prozesu hori bakarka edota taldeka egin daiteke. Hau da, praktika jakin bat praktika egin duenak berak beha eta azter dezake eta hortik atera

beharreko ondorioak atera; edota praktika hori (bakarka edota taldean eginda-koa) gogoeta gai izan daiteke taldearentzat. Lan kooperatiboa egiteko, taldeki-deen begiradak gurutzatzeko eta besteei esker gogoeta sakontzeko aukera eskaintzen du prozesuak.

4. ESPERIENTZIA: JENDAURREKO AHOZKO AURKEZPENEN LANKETA

4.1. Abiapuntua

Esan dugun moduan, hemen aurkezten den interbentzio didaktikoa HH eta LH Graduetan gauzatzen da. Ikasleen aurretestuak aztertu ostean, identifikatu dira ahozko aurkezpen formalaren lanketan irakasgarri izan ahal diren alderdiak. Urteroko aurretestuak aztertu ondoren, zailtasun antzekoak azaltzen direla baieztatu genezake:

- Alderdi emozionala garrantzitsua da ikasleek jendaurreko ahozko aurkezpenak egiterakoan, eta horrekin lotuta hasierako aurkezpenetan ohikoak dira lotsa, esanezinak, “zuri” gelditzeak, barre geldiezinak, eta abar. Maila horretako zailtasunak dira ikasleek errazen identifikatzen dituztenak, sentimenduekin lotuta daude eta gainontzeko hutsuneak estaltzeko erabiltzen dituzte sarri-askotan, alegia, *“gaizki egin dut oso urduri egon naizelako”* moduko azalpenak ohikoak dira ikasleen hasierako gogoetetan.
- Testuinguru komunikatiboa ongi identifikatzea eta hara egokitzeak zailtasuna ere ohikoa da. Jendaurreko aurkezpena izan arren, ikasleei erregistro formalera egokitzea kostatu egiten zaie, baita, oro har, entzuleriari egokitzea ere, identifikatzea zer dakien eta zer ez dakien eta horretara doitzea, bere diskurtsoan entzuleak kontuan hartzea, eta abar.
- Ikusten da ikasleek ahozko aurkezpenen egitura orokorra (sarrera / edukien aurkezpena / bukaera) hitzetara ekartzean zailtasunak dituztela, eta hori bereziki nabarmena da bukaerarekin. Hasierako aurkezpenetan isiltasuna eta yasta dira aurkezpenak bukatzeko baliabide ohikoenak. Ideien arteko garapenean eta kohesioan ere baliabide falta nabari da: *eta gero* da behin eta berriz agertzen den testu-lotura. Gainera, nabari da ahozko aurkezpenok askotan idatzizko euskarrian pentsatuak daudela eta, hori dela eta, ez dira agertzen ahozko diskurtsoan ohikoak diren errepikapenak, bir-formulazioak, berrartzeak...
- Espazioa eta gorputza diskurtsoaren lagungarri gisa erabiltzeko zailtasunak dituzte ikasleek hasierako ekoizpenetan: atzera jotzeko joera dute, babes bila arbelaren edo paretaren kontra jartzekoa, lurrera edo paperera begiratzekoa, erakusten dute etengabe irakaslearen begirada bakarrik bilatzeko beharra, eskuak non eta nola jarri asmatu ezinik ibiltzen dira asko eta asko...
- Zuzentasun arazoak ere nabarmentzen dira ikasleatariko batzuen artean, eta horrekin batera, baita jariotasunik eza ere.

- Eta bukatzeko, ikusten da ahozkoa laguntzen duten euskarriek (bereziki aurkezpen elektronikoak erabiltzen dituzte) askotan ez dutela behar bezala laguntzen, gehienetan aurkezpenok beteegi, informazioz gainezka egon ohi dira eta ikasleak gehiegi lotzen zaizkie bertako egiturari zein edukiei.

Argitu behar da zailtasun horiek guztiak ez direla ikasle guztiengan maila berean ikusten: batzuek zailtasun handiagoak dituzte zuzentasun-jarioratasunarekin, beste batzuek erregistroarekin, edota espazioaren eta gorputzaren erabilerekin... Eta argi dago badaudela ikasleak jendaurrean ahoz ongi moldatzen direnak, baina esan dezakegu gutxiengoa dela. Egoera askotarikoa izanik, garrantzitsua iruditzen zitzaigun ikasle bakoitzaren beharrei erantzun ahal izateko dispositibo didaktikoa sortzea, eta horrexetan laguntzen digute, hain zuzen ere, SDak eta praktika gogoetatsuak.

Aipatu berri ditugun alderdi horiek ikaste-objektu bihurtu ziren eta materiako gida didaktikoan zehaztu ziren. Gaur egun, eta materiaren planteamendu eleantunean kokatuta, honako kompetentziak aipa ditzakegu ahozko trebetasunarekin lotuta:

- Ahozko adierazpen-teknikak ezagutu eta menderatu.
- Ahozko tradizioa ezagutu.
- Hizkuntza berbalaren eta ez-berbalaren erabilera egokia ezagutu eta baloratu.
- Hizkuntzaren erregistroak eta erabilerak ezagutu.
- Azalpen-testuen ezaugarri nagusiak ezagutu eta horietan trebatu: egoera komunikatiboa, egokitzapena eta testualizazioa (kohesioa, konexioa, koherentzia eta modalizazioa).
- Norberaren eta ikaskideen gaitasunak eta mugak ezagutu, eta ebaluatu.
- Testuinguru jakin batzuetan hizkuntzen erabileran dauden zailtasunen kontzientzia hartu, eta gainditu beharreko erronka gisa aurre egin, jarrera positibo eta irekiarekin.
- Komunikatzeko eta hezkuntza-praktikarako hizkuntza-baliabide informatiko egokienak erabiltzen jakin.

4.2. Lanketa egiteko modua eta bitartekoak

Arestian esan dugunez, jendaurreko ahozko aurkezpenak lantzeko erabiltzen dugun dispositibo didaktikoa bi ardatzen inguruan gorpuzten da: SDa eta praktika gogoetatsua. Garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea lanketa espiralean egiten dela, alegia, praktikaren gainean eta etengabeko interakzioan garatzen joateko diseinatua dagoela. Hona hemen lanketa-progresio horren irudia:

4. irudia. Lanketa progresioa



4.2.1. Praktika

Hainbat aurkezpen egiten dituzte lehen ikasturteko ikasleek, horietariko hiru (bata ikasturteko lehen astean, bestea ikasturte erdian eta azkena ikasturte amaieran) grabatu egiten dira eta ikasleei eskuragarri jartzen zaizkie. Ikasleek hasiera-hasieratik dakite ahozko aurkezpenen lanketa komunikazio trebetasunen garapenean lehentasuna duen lanketa-gaia dela eta ikasturtean zehar hainbat unetan eta materiatan ekoiztuko dituztela aurkezpenak. Egingo dituzten aurkezpenak, beraz, kokatuak izango dira eta hainbat materiatako edukiak ebaluatzeko eta kalifikatzeko erabiliko dira. Horrez gain, garrantzitsua da ikasleak hartzen duen rola; izan ere, aurkezpen horietako bakoitzak testuinguru sozio-subjektibo jakin bat eraikitzen du eta horrek baldintzatu egiten du enuntziazio-egoera (Bronckart, 1996), bai hizlariak zer eta nola esaten duen (noren izenean hitz egiten duen, noren ahotsak ekartzen dituen, nola modalizatzen duen...), bai eta hartzaileak nola entzuten duen (entzute aktiboaren gaineko iradokizunak eta lanketa bultzatzen dira). Lehen mailan grabatzen diren aurkezpen guztiak gela barruko aurkezpen formalak dira, lehen mailako hainbat edukiren ikaskuntzarekin lotuak, eta ikasleak aditu bihurtuko dira eta aditu moduan jokatu behar dute azaldu behar duten gai horretan: dela talde bakoitzaren ezaugarri pertsonalak, dela edozein materiako edukien gaineko azalpena, azalpen guztiak elkarren osagarri dira (ez dira errepikatzen). Egoerak, beraz, eskatzen die elkarri ekarpenak egitea, hortaz, esan daiteke ikasleek egoera komunikatibo erreal bati erantzun behar izaten diotela eta, beraz, esanguratsuak direla, hala akademikoki nola komunikazioaren ikuspuntutik.

4.2.2. Behaketa eta gogoeta

Lanketaren abiapuntua autoebaluazioa da, hau da, ikasle bakoitzak bere praktika behatzen eta ebaluatzen du. Bestalde, ikaskideen eta tutorearen feedbacka izateko aukera ere izaten du prozesuan zehar. Behaketa eta gogoeta hori hainbat unetan egiten da eta horretarako hainbat tresna erabiltzen dira.

- **Lehen behaketa eta gogoeta**

Esan dugun moduan lehen grabaketa ikasturte hasieran egiten da, ikasleak ahozko aurkezpenen inguruko inongo lanketarik egin ez duenean. Bideo horretan ikasleak bere praktika ikusten du eta ahozko aurkezpenen oina

rrietara lehen hurbilpena egiteko aukera izaten du. Behaketa eta gogoeta hori egiteko ondorengo txantiloia erabiltzen da:

1. taula. Gogoeta txantiloia

ALDAGAIAK	OHARRAK
<p>(1) Testuingurua/Komunikazio egoera Hartzailearen aurrezagutzak / hartzaile kopurua kontuan hartu dituzu? Espazioa ongi erabili duzu? Denbora ongi antolatu duzu? Gaia egokia izan da? Jarritako helburua lortu al duzu? Testu molde egokia aukeratu duzu?</p>	
<p>(2) Testu egitura/ideiak antolatzea SARRERA. agurra; gaiaren aurkezpena; antolaketa berri? GARAPENA. gai nagusiak eta azpi-gaiak egoki garatu dituzu? AMAIERA. amaiera auresan duzu, ideiak laburbildu dituzu, proposamenen bat edo/eta publikoari agurra egin duzu?</p>	
<p>(3) Gaiaren garapena: testu-antolatzaileak Lokailu eta testu antolatzaileak modu aberatsean eta egokian erabili dituzu? Gaia berreskuratu duzu? Ideiak birformulatu dituzu?</p>	
<p>(4) Aurkezpena gauzatzeko modua eta euskarri lagungarriak Ikus-entzunezko baliabideak (argazkiak, musika, aurkezpen elektronikoa, objektuak...) erabili dituzu? Egoki? Entzuleari egindako galdera zuzen eta erretorikorik erabili duzu? Hartzailearentzat interesgarri diren gaien lanketa / aipamena egin duzu? Errealitatearekin loturarik egin duzu? Adibideak emanez, konparazioak egin...ez...</p>	
<p>(5) Erregistroa eta hizkuntza zuzentasuna Zuzentasunez hitz egin duzu? Lexiko egokia, makulu desegokirik ez (erdal makuluak, informalak...), ahoskera egokia eta zaindua, baliabide morfosintaktiko zuzenak, erredundantzia okerrik ez... Egoerari dagokion erregistroa (formala) erabili duzu?</p>	
<p>(6) Hizkuntzaz kanpoko komunikazioa Elementu paraberbalak egoki erabili dituzu? Tonua, erritmoa, intentsitatea, ozentasuna, isiluneak... Elementu ez berbalak egoki erabili dituzu? Begirada, distantzia, kokagunea, keinuak, ikus-entzunezko euskarriak...</p>	
<p>Nola sentitu zara aurkezpena egiterakoan? Lasai egon zara? Gorritu zarela sentitu duzu? Ideiak antolatu eta esateko zailtasunik izan duzu? Honetan guztian pentsatu al zenuen aurkezpena egin aurretik?</p>	

Lehen gogoeta honen helburua da ikasleak arreta jartzea ahozko aurkezpen bat egiterakoan dituen indargune eta hobetzekoetan. Gainera, nahi da ikasleak ondoren egingo diren jarduera edo tailerretan landuko diren alderdietara hurbiltzea. Lehen gogoeta honi egiten zaion feedbacka batez ere gogoetaren

sakontasuna bermatzera zuzenduta dago, hau da, bultzatu nahi da ikaslea ebidentziak ekar ditzan edota metahizkuntza erabil dezan. Erabilitako txantiloian agertzen diren kontzeptuak lanketa prozesuan zehar behin eta berriz agertuko dira.

• **Bigarren behaketa eta gogoeta**

Hainbat jarduera/tauler egin ostean (tailerrak 1) ikasleei bigarren aurkezpen bat grabatzen eta eskuragarri jartzen zaie. Bigarren gogoeta egiteko ikasleek ahozko aurkezpena ebaluatzeko errubrika dute eskura. Errubrika hori ikasleekin adostu eta argitzen da gogoeta egin aurretik. Errubrikak ikasleei irizpideak eskaintzen dizkie euren burua ebaluatzeko eta indargune/hobetzekoak identifikatzeko. Gainera, errubrikaren bidez prozesuaren zein unetan dauden eta maila bikainera iristeko eman beharreko urratsak zeintzuk diren ikusarazten zaie.

Hona hemen errubrika¹:

2. taula. Ahozko aurkezpenen errubrika

ALDAGAIK	BIKAIN (10)	ONGI (6)	ESKAS (3)
(1) <i>Testuingurua/ Komunikazio egoera</i>	Egoera komunikatiboari ongi egokitu zaio: - Esleitutako denbora erabili du. - Entzuleei informazioa helarazi die eta mezua argia izan da. - Hartzaileari egokitzen saiatu da eta horretarako baliabideak erabili ditu: adibide esanguratsuak, ulermena ziurtatzeko galdera erretorikoak, jakintza konpartituei erreferentzia, 2. pertsonaren erabilerak, kortesiazko estrategiak.	Egoera komunikatiboari egokitzeko nolabaiteko ahalegina egin du: - Denbora gutxi gorabehera zaindu du, baina amaieran arindu edo betelana egin behar izan du. - Mezua ulertu da. - Hartzaileari egokitzeko baliabideren bat erabili du: adibideren bat, galderaren bat, jakintza komunei erreferentziaren bat., baina ez beti egokienak.	Ez da ongi egokitu egoera komunikatibora: - Denbora gehiegi edo gutxiegi behar izan du. - Ez dago argi zein den hitzaldiaren mezu nagusia - Ez du hartzailea kontuan hartu hitzaldian, ez edukiekin ez formetan.
(2) <i>Edukiaren trataera</i>	Edukia ongi aukeratu eta barneratu du. - Emandako edukiak esanguratsuak izan dira gai eta helburu orokorrarekiko. - Erabilitako iturriak eguneratuak daude, askotarikoak, egokiak eta gaiarekiko pertinentek dira. - Hizlariak aipatutako erreferentziako autoreek gaiari ekarpena egiten diote.	Edukia nahiko ongi aukeratu du. - Emandako edukiak gehiengotan esanguratsuak dira gai eta helburu orokorrarekiko. - Iturri esanguratsuak erabili dira, nahiz eta batzuetan emandako informazioa guttiz ez lotu gai eta helburu orokorrari. - Aipatutako autoreek gaiari ekarpena egiten diote, baina	Aukeratutako edukia ez da egokiena. - Emandako edukiak gaiarekin ez dute lotura zuzenik edota azaleko harremana dute. - Edukiak oso modu orokorrean azaltzen ditu (lexiko mailako zehaztapenik gabe, adibide orokorrekin). - Bere esperientzia pertsonalera lerratzen da eta ez du bestelako iturririk aipatzen.

1. Eskerrak eman nahi dizkiogu Eugenio Astigarraga lankideari errubrika honi egindako oharrengatik.

ALDAGAIK	BIKAIN (10)	ONGI (6)	ESKAS (3)
	<ul style="list-style-type: none"> - Ikusten da edukiak barnera-tu dituela eta bere iritzia funtsatzeko erreferentzia esplizituak erabiltzen ditu. 	<ul style="list-style-type: none"> esanguratsuak izan daitezkeen batzuk falta dira. - Badago ahalegina edukiak hizlariaren ikuspegitik aurkezteko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Iturriak, aipatzen dituenean, beti ez dira esanguratsuak, eta esanguratsuak diren iturriak falta dira. - Ez da autorerik aipatzen edota aipatutako autoreak ez dira egokienak. - Informazioa bere horretan aurkezten du, ez dago hizlariaren ekarpenik.
(3) <i>Testu egitura/ideiak antolatzea</i>	<p>Aurkezpenaren egitura egokia da eta modu esanguratsuan adierazi du.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sarrera: behar izanez gero bere burua aurkeztu du; gaia aurkeztu du; behar izanez gero, gaiaren esanguratasuna justifikatu du; hitzaldiaren aurkibidea azaldu du. - Garapena: gai nagusiak eta azpi-gaiak argi identifikatu daitezke. - Amaiera: amaiera aurreikusi du, ideiak laburbildu ditu, proposamenen bat egin du, publikoa agurtu du modu esanguratsuan. 	<p>Egitura egokia da, baina modu mekanikoan eginda dago.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sarrera: bere burua eta gaia aurkeztu ditu eta aurkibidea azaldu du. - Garapena: gai nagusiak eta azpi-gaiak banatu ditu. - Amaiera: amaiera aurreikusten da, eta amaitzeko formularen bat erabili da. 	<p>Aurkezpenaren egitura ez da guztiz egokia.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sarrera: ez du gairik aurkeztu. Ez du zertaz hitz egingo duen aurreratu. - Garapena: ideien antolaketa oso nahasia da, ez dago antolaketa argirik gai nagusien artean. - Amaiera ez da aurreikusi eta bat-batean bukatu du: isiltasunarekin edota yasta moduko formula batekin.
(4) <i>Gaiaren garapena: testu-antolatzaileak</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Atal nagusiak lotu ditu: testu antolatzaileak, galderak... erabiliz. - Azpi-gaietan ideiak lotu ditu lokailuak erabiliz: <i>gainera; ez hori bakarrik; gainera aipatu behar da; garrantzitsua ere bada...</i> - Azalpena espiralean garatu du: ideiak berrartu ditu zehaztasunak emateko: <i>lehen aipatu dut...; lehen ere azaldu dut...; hasieran komentatu dut...; arestian esan bezala...; ideiak birformulatu ditu nozio/informazio berriak argitzeko: beste hitz batzuekin esanda; eta horrek zer esan nahi du? Ba...; beste modu batera azalduko dut...; horrekin esan nahi dut...</i> 	<ul style="list-style-type: none"> - Atal nagusiak bereizten ditu, baina beti antolatzaile antzekoak erabili ditu (<i>Xi dagokionez, Xi buruz...</i>). - Azpigaien arteko lotura batzuk badaude, baina beti ez ditu modu egokian egiten. Askotan lokailu bera erabiltzen du (<i>eta, eta gero...</i>) - Birformulazioen bat edota errepikapenen bat egin du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Atal nagusiak bata bestearen atzean doaz, baina ez da berbalizatzen noiz bukatu den bat eta noiz hasten den hurrengoa. - Azpigaiak ez dira bereizten edota lokailu gutxirekin lotu dira (<i>eta, eta gero...</i>). - Ideiak errepikatu dira adierazi gabe. - Hizkera idatzitik oso hurbila da, lineala, ez dago birformulaziorik, berrartzerik, errepikapenik...

ALDAGAIK	BIKAIN (10)	ONGI (6)	ESKAS (3)
(5) <i>Aurkezpena gauzatzeko modua eta euskarri lagungarriak (behar izanez gero)</i>	<p>Euskarriak baliatu ditu modu esanguratsuan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Baliabideak: power-point, arbela, gardenkiak, materialak, bideoak, Internetera loturak... erabili dira modu esanguratsuan eta kontzientean, helburu batekin. - Ematen den informazioa argia da, ikusleak erraz ikusi-irakurri dezake. - Testua zuzena eta egokia da. - Ez du paperen beharrik aurkezpena egiteko. 	<p>Euskarriak baliatu ditu, beti ez modu esanguratsuan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Baliabideak erabili dira, baina beti ez modu esanguratsuan. - Ematen den informazioa nahiko argia da. - Testuan akatsen bat dago. - Nolabaiteko dependentzia du paperarekiko edo power pointarekiko. 	<p>Euskarriak ez du erabili edota modu desegokian erabili du: zaratatsua da, iluna, letra asko du, akatsak ditu...</p> <ul style="list-style-type: none"> - Baliabideak ez dute helburua lortzen lagundu, ez dira esanguratsuak. - Testuan hainbat akats dago. - Etengabe begiratu ditu paperak edo power pointa.
(6) <i>Erregistroa eta hizkuntza zuzentasuna</i>	<ul style="list-style-type: none"> - Gaiari eta hartzaileari egokitzen zaion lexikoa erabili du. - Makulu desegokiak ekidin ditu. - Ez du akatsik egin. - Egoerari dagokion erregistroa erabili du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Saiatu da erregistro egokia erabiltzen, nahiz eta noizean behin hutsuneren bat izan. - Saiatu da makuluak ekiditen, nahiz eta noizean behin makuluren bat erabili. - Akatsen bat egin du, baina ez da sistematikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> - Erregistro desegokia erabili du. - Lexiko arrunta erabili du. - Makuluak (<i>bueno, e, ba</i>) erabili ditu etengabe inongo funtzio diskurtsibo gabe. - Akatsak egin ditu sistematikoki.
(7) <i>Hitzez gairako komunikazioa</i>	<p>Baliabide ez berbal eta paraberbalak egoki erabili ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tonua aldatu du edukiaren arabera: garrantzitsua azpimarratzeko igo, ideia edo gaiaren bukaerantz jaitsi. - Abiadura egokia erabili du: ez arinegi ez geldoegi. - Isilune esanguratsuak egin ditu: zerbait garrantzitsua esan aurretik isilunea - Ozentasun egokia erabili du: entzule guztiek jaso dute mezua. - Entzule guztiei begiratu die. - Tik-ak ekidin ditu. - Gorputza erabili du diskurtsuari laguntzeko: eskuak... - Espazioa erabili du hartzailearengana hurbiltzeko. 	<p>Saiatu da baliabide ez berbal eta paraberbalak egoki erabiltzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tonua aldatu du nahiz eta beti ez helburu komunikatibo batekin. - Abiadura: saiatu da abiadura kontrolatzen. - Isiluneak: zerbait garrantzitsua esan aurretik isilunea egin du. - Ozentasuna: entzule guztiek jaso dute mezua gehienetan, baina gorabeherak daude. - Entzule guztiei begiratzen saiatu da, nahiz eta batzuetan puntu batera begiratu. - Tik-ak ekiditen saiatu da. - Batzuetan mugitu da eta mahaiaren aurretik jarri da. 	<p>Baliabide ez berbal eta paraberbalak desegoki erabili ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tonu monotonoa darabil: isilunerik ez dago. - Arinegi edo geldoegi mintzatu da. - Baxuegi edo altuegi mintzatu da. - Lurrera edo irakasleari baka-rik begiratu dio. - Tik-ak ditu (boligrafoa, hanka...) - Gorputza estatiko dauka, inongo mugimendu gabe; etengabe mugitu da. - Espazioa: ez da mugitu, hormaren ondoan edota mahaiaren ostean jarri da.

4.2.3. Jarduerak/tailerrak: teoria

Sekuentzia Didaktikoan hainbat jarduera eta tailer egiten dira. Tailer horien edukia eta ordena, neurri handi baten, aurretetuetan ikusitakoak baldintzatzen ditu. Tailer horiek bi bloketan banatzen dira:

1. Blokea

Lehenengo blokea abiatzen da eredu on baten behaketa eta azterketatik. Ikasleek ereduzko ahozko aurkezpen bat ikusi dute eta euren burua aztertzeko erabili duten txantiloia bera (ikus 1. taula) erabiliz aztertzen dute.

Bestalde, lehen bloke honetan ikasleek euren hurrengo aurkezpena prestatzeko beharrezko diren zenbait alderdi jorratu dituzte. Horretarako berariazko hainbat tailer egin dira:

- *Oso urduri jartzen naiz.* Emozioen kudeaketa lantzeko tailerra da. Helburua da aurkezpena egiteak sortzen duen urduritasuna ulertzea eta hori kudeatzeko estrategiak garatzea. Horretarako, bultzatzen da zenbait egoeratan emozioak azaleratzea hainbat egoera eta sentimendu antzetzuz.
- *Gidoi on bat aurkezpen on baterako.* Tailer honek bi helburu nagusi ditu: batetik, gidoiaren beharraz ohartaraztea eta zein helburu eta funtzio dituen azaltzea; bestetik, gidoi baten ezaugarriak eta euskarri posibleak zeintzuk diren lantzea. Hala, gidoi bat egiteko zenbait ezaugarri azpimarratzen dira tailerlean: laburtasun eta argitasunaren garrantzia, bakoitzaren beharretara egokitu beharra, hitz-giltzek duten funtzioa, euskarriak aurkezpenean lagungarri izan behar duela baina ez dela bere menpean egon behar, eta abar.
- *Euskarri elektronikoa.* Aurkezpenetan hainbat euskarri erabil daitezke, baina euskarri elektronikoa da ikasleek usuen erabiltzen dutena. Hala, euskarri elektronikoak egiteko laguntza teknikoaz gain, komunikazioaren ikuspegitik kontuan hartu beharreko bost alderdi azpimarratu zaizkie ikasleei eta hori egiteko bitartekoak eskaini: 1) sinpletasunaren garrantzia; 2) irudiak hitzari laguntzeko bitarteko; 3) trantsizioek, soinuek... ez dute traba egin behar; 4) diapositiba bakoitzean ideia nagusi bat egon behar da; 5) testuak zuzena izan behar du.
- *Komunikazioaren alderdi ez berbalak.* Tailer honen helburua da gogoeta egitea alderdi ez berbalek komunikazioan duten egitekoaz eta lantzea hainbat estrategia komunikazio ez berbal hori bermatzeko. Bi arretagune dira nagusi tailer honetan: ahotsa (eta horren baitan isiltasunaz baliatzea eta intonazioa) eta gorputza (espazioaren erabilera, gorputza diskurtso markatzaile gisa eta begirada).

2. Blokea

Tailerren bigarren blokea gauzatzen da bigarren aurkezpena egin eta hari buruzko gogoeta egin ondoren. Ikasleek ahozko aurkezpenak prestatzeko unea arrisku unetzat identifikatzen dute; hori dela eta, arreta berezia jartzen zaio une horri, eta egingo dituzten aurkezpenetan erabil dezaketen tresna lantzen da. Hona hemen tresna hori:

3. taula. Ahozko aurkezpena prestatzeko txantiloia

AHOZKO AURKEZPENA PRESTATZEKO TXANTILOIA	
1. PAUSOA. Testuingurua aurreikusi	
Zein d(ir)a aurkezpenaren hartzailea/k? Zein ezaugarri ditu(zte)?	
Non egingo duzu aurkezpena? Nolako ezaugarriak ditu espazioak?	
Zenbat denbora duzu aurkezpena egiteko?	
Zein da aurkezpenaren helburua? Idatzi esaldi baten zer nahi zenukeen gogoratzea zure entzuleek aurkezpena bukatu ondoren.	
Zein erregistro erabiliko duzu? Batua, euskalki zaindua?	
2. PAUSOA. Edukia: informazioa bildu eta aukeratu	
Bilatu medioetan (liburu, aldizkari, Internet, apunte...) gaia garatzeko beharko duzun informazioa. Aukeratu informazio egokiena duzun komunikazio egoerari erantzuteko.	
Zerrendatu jaso duzun informazio guztia	Esanguratsuenak bakarrik aukeratu
3. PAUSOA. Gidoia idatzi	
Gogoratu gidoiak izan behar duela argia, laburra eta hitz-giltzak azpimarratuta.	
Sarrera: atal honetan testuinguratuko duzu aurkezpena; azalduko duzu zeri buruz hitz egingo duzun eta zein izango den aurkezpenaren ibilbidea.	
Garapena: zenbat azpi gai jorratuko dituzu?, azpi gai horien barruan zein datu, adibide... emango duzu?, nola pasatuko zara azpi gai bate-tik bestera?	
Bukaera: nola adieraziko duzu bukaerarantz iristen ari zarela?, labur-tuko duzu ideia nagusia?, nola?, nola agurtuko duzu publikoa?, hitza eskainiko diozu galderarik egiteko?	
4. PAUSOA. Euskarriak prestatu	
Zein baliabide erabiliko duzu aurkezpena laguntzeko: euskarri elektronikoa?, arbela?, materialak (umeen lanen bat, panpinen bat, planoren bat...)? Zertarako erabiliko dituzu euskarri horiek? Gogoratu euskarriak hartzaileari egokitu behar zaizkiola, argiak, erraz irakurtzeko modu-koak izan behar direla; bestela, zarata bihur daitezke.	
5. PAUSOA. Entseatu	
Entseatu, bakarrik egin dezakezu edo beste norbaiten aurrean. Horrek lagunduko dizu denbora ondo kalkulatu duzun ikusten, baliabideek ondo funtzionatzen duten ziurtatzen, nerbioak lasaitzen, eta abar.	

5. ESPERIENTZIAREN EBALUAZIOA

Ikas-esperientzia honen ebaluazioa bi ikuspuntutatik egiten da: batetik, ikasleek ebaluatzen dute esperientzia gogobetetze inkesta eta testu baten bidez; eta bestetik, tutore-ikerlariek ikasleen ekoizpenak ebaluatzen dituzte, aurretetua eta ondoretua alderatuz.

5.1. Ikasleen ebaluazioa

Ikasleek, oro har, positibotzat jotzen dute ahozko aurkezpenen inguruan egiten den lana. Gogobetetze inkestetan puntuazio altua izaten dute ahozko hizkuntzaren lanketarekin loturiko jarduerak. Gainera, idatziz jasotako balorazioetan ikusten da ulertzen eta onartzen dutela egiten ari den lanaren balioa eta erabiltzen diren bitartekoak, bai eta haien profil profesionalarekin duen lotura ere. Hona hemen iritzi horietariko batzuk:

1 ikaslea.

Nire aburuz, hitzaldi hori 1.1. material² egindako lanaren ahozko aurkezpena egin ondoren erakustea egokia izan da. Izan ere, hurrengo hitzaldiak hobetzeko hobe da abiapuntua ezagutzea bakoitzaren zailtasunaz errazago jabetzeko eta pixkanaka jendaurrean nola komunikatu behar den ikasteko. Bide batez, esan beharra dut 1.1. materiala aurkezpena grabatzea oso ideia ona izan dela, nahiz eta nire burua ikusteak lotsa handia eman zidan. Grabaketaren bidez, konturatu nintzen ahoskeraren, eritmoaren, kokagunearen, keinuen, begiradaren... garrantziaz. Nire burua ikusi eta Juanjo Otañoren hitzaldia³ ikusi ondoren konturatu naiz hainbat gauza hobetu behar ditudala, esate baterako, ozenago hitz egitea, irakaslea bakarrik ez dudala begiratu behar, esaldiak osatzeko zailtasuna gaintu behar dudala eta nire gorputza gehiago erabili behar dudala transmititzeko, keinuek hitzek baino gehiago adierazten baitute.

2 ikaslea.

Hizkuntzaren tailerrean hitzaldi bat nola gauzatu behar den ikasteaz gainera, ahozko hizkuntzak duen garrantziaz ere jabetu nintzen. Izan ere, gu etorkizunera begira irakasle izango garen heinean, ahozko hizkuntza egunero erabiliko dugun zerbait dugu. Eta horrekin batera, komunikazio eraginkorra izan nahi badugu, ahozko hizkuntza lantzea ezinbestekoa zaigu; horrela ikasleen arreta piztu eta hezkuntza hobea jaso dezaten.

3 ikaslea.

Irakasle izateko orduan, ahoz komunikatzeak izugarriko garrantzia duela uste dut, eta hitzaldi bat ondo emateak edo azalpen bat ondo emateak ere bai, horren arabera lortuko baitu irakasleak ikasleen atentzioa bereganatzea edo ez bereganatzea.

2. 1.1. materia deritzo "Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasle-lanbidearen definizio eta testuinguratzea eta gaitasun orokorren garapena" materialari.

3. Ereduzko hitzaldi gisa erabili den hitzaldia.

5.2. Tutore-ikerlarien ebaluazioa

Tutoreoi dagokigunez, bi alderdiren inguruko ebaluazioa egin dugu; batetik, gogoeten sakontasunaren garapena nolakoa izan den ebaluatu dugu, eta, bestetik, ekoizpenen izaerak zein garapen izan duen.

Gogoeten sakontasunari dagokionez, ikusi dugu ikasleen gogoeta maila sakondu egiten dela prozesuan zehar, bai egiten dituzten baieztapenen justifikazioan, bai erabiltzen duten metahizkuntzan ere. Hona hemen adibide gisa eka-rritako bi gogoeta zati:

Lehen gogoeta

tonu egokia erabili dudala iruditzen zait, hala ere, ez legoke gaizki pixka bat ozena-go hitz egitea. Bestetik jendeari begiratzan saiatu naiz, baina momentu batzuetan irakasleari edota nire taldekideei soilik begiratu diet.

Bigarren gogoeta

Hizkuntzaz gaindiko komunikazioari begiraturaz, esan beharra daukat hitz egiterako orduan tonu zein abiadura kontrolatzen saiatu naizela; hala ere, ez dut beti lortu, gainera, saiakera bat egin dut ahal nuen heinean jendeari begiratzeko, baina zenbaitetan begirada pertsona batengana zuzentzen dut. Isiltasunaz ere gehiago baliatu beharko nuke eta gorputza eta keinuak gehiago erabili beharko nituzke, azken finean alderdi hori funtsezkoa baita ongi komunikatzeko. Horrekin guztiarekin, nahiko bat jarriko nioke nire buruari.

Gaiaren garapenean gai nagusiak eta azpi-gaiak nahiko era egokian lotu nituen. Hori egiteko oso lagungarria egin zitzaidan power pointa erabiltzea, izan ere, antolaketan asko laguntzen du. Power pointean ideia nagusiak idatzi genituen.

Gaiaren garapena egiteko, atal nagusiak gaiarekin lotu ditut. Horretarako lokailu ezberdinez baliatu naiz: “gero”, “azkenik”, “lehenik eta behin”... Horretaz gain, azpi-gaietako ideiak ere lotu ditut lokailu ezberdinak erabiliz. Birformulazioaren bat ere egin dut, baina horretarako erdal antolatzaille batez baliatu naiz; beraz, lokailu desegokia erabili dut: “o sea”. Hurrengo baterako ideiak berrartzeko estrategiak gehiago erabili behar ditut.

Bestalde, ikasleen ekoizpenen garapena ikusteko ikasleen aurretestuak eta ondotestuak alderatu dira. 2010-2011 ikasturtean HH eta LH Graduetan zazpi ikas-talde egon dira (204 ikasle); horietatik 16 ikasleko lagin bat hartu da, zortzi HH Gradukoak eta zortzi LH Gradukoak, eta jarraipen berezia egin zaie. Talde horretan jasotako bi bideo grabaketak aztertu dira eta errubrika aintzat harturik euren arteko konparaketa egin da. Errubrikaren bidez egindako ebaluazioa eka-rrri da emaitza orokorretara (eskas, ongi, bikain), eta aztertu da, batetik, ikasle ikasle, errubrikaren aldagai guztiak kontuan hartuta, eta beste alde batetik, alda-gaiak nola dauden garatuta orokorrean ikasleen artean. Hala bada, emaitzak ondokoak izan dira:

4. taula. Ikasleen ekoizpenen alderaketa

ALDAGAIK		URRIA				ABENDUA			
		Bikain	Ongi	Eskas	Kalifikatu gabe	Bikain	Ongi	Eskas	Kalifikatu gabe
Testuinguru/ Komunikazio egoera	Esleitutako denbora erabili du	0	12	2	2	2	12	2	0
	Mezua ulertu da	0	11	3	2	3	9	2	2
	Hartzaileari egokitzeko baliabideak erabili ditu	0	10	6	0	4	3	6	3
Testu egitura/ ideiak antolatzea	Egitura egokia eta esanguratsua	0	4	12	0	4	9	2	0
	Sarrera	0	3	13	0	3	8	4	1
	Garapena	0	4	12	0	3	8	4	1
	Bukaera	0	0	16	0	3	11	1	1
Gaiaren garapena: testu- antolatzaileak	Atal nagusiak lotuta	0	1	13	2	2	7	5	2
	Azpi-gaietan ideiak lotuta	0	0	14	2	2	6	6	2
	Azalpenak espiralean: ideiak berrartuta	0	0	13	3	3	5	6	2
	Birformulazioak	0	2	14	0	1	3	7	5
Aurkezpena gauzatzeko modua eta euskarri lagungarriak (behar izanez gero)	Baliabide esanguratsuak	0	2	12	2	2	8	6	0
	Informazio argia	0	4	8	4	0	4	1	11
	Testua zuzena	0	4	8	4	0	4	2	10
	Paperik gabe	0	10	4	2	0	7	4	5
Erregistroa eta hizkuntza zuzentasuna	Lexiko egokia	0	2	12	2	0	12	1	3
	Makulurik ez	0	8	6	2	0	3	13	0
	Akatsik ez	0	5	8	3	0	8	6	2
	Erregistro jasoa	0	11	2	3	0	16	0	0
Hitzez gaindiko komunikazioa	Tonua	0	2	2	12	0	9	1	6
	Abiadura	0	13	3	0	0	10	3	3
	Isilune esanguratsuak	0	2	14	0	0	1	2	13
	Ozentasuna	0	14	4	0	0	9	1	6
	Begirada	0	3	13	0	0	7	6	3
	Tik-ak	0	12	4	0	0	2	0	14
	Gorputzaren erabilerak	0	0	16	0	0	7	7	2
Espazioa	0	0	16	0	0	6	5	5	

Behin grabaketak aztertuta, laburbilduz zera esan daiteke:

- Ikasleak bigarren jendaurrekoan lasaiago aritu dira eta euren diskurtsoan jariotasun handiagoa erakutsi dute.
- Abenduko aurkezpenak, irailkoak ez bezala, egitura jakin bat du eta, oro har, modu esanguratsuan adierazi du: sarreran gaia aurkeztu eta jorratuko dituzten alderdi nagusiak aipatu dituzte; gai nagusiak eta azpi-gaiak ere banatu dituzte eta amaiera hitzez aurreikusi dute. Amaitzeko formularen bat erabiltzen dute gehienek. Ohikoena galderarik dagoen galdetuz amaitzea da, baina bada amaieran hitzaldiko puntu nagusiak azpimarratuz bukatu duenik ere.
- Antolatzaileak ere, aurretестuan gertatzen zenarekin erkatuz, ugariak eta askotarikoak dira, nahiz eta askotan ahozko aurkezpena idatzitik hurbilago dagoen ahozkotik baino. Izan ere, idatzian gertatzen den bezala, azalpenak modu lineal batean garatzen dituzte eta ez espiralean, berrartuz. Alde horretatik, ideiak berrartu eta zehaztapenak emateko nahiz ideia bera beste hitz batzuek birformulatzeko zailtasunak antzematen dira. Halakoetan ere bada, ordea, hobekuntzarik lehen aurkezpenetik bigarrenera. Bigarren aurkezpenean beste solaskideek esandako ideiak behin baino gehiagotan berrartu dituzte eta ideia birformulatzeko ahalegina ere handiagoa da, nahiz eta gehienetan “hau da” lokailuaz baliatu diren.
- Aurkezpena gauzatzeko erabili dituzten euskarri lagungarriak (aurkezpen elektronikoak bereziki) nahiko ongi erabili dituzte (ematen den informazioa argia da, ikusleak erraz ikusi-irakurri dezaketena), baina oraindik ere pape-rera gehiegi makurtzen dira.
- Saiatu dira erregistro egokia erabiltzen edo behintzat horren inguruko hausnarketa suma liteke; izan ere, euskara estandarrean nahiz euskalkian egin duenak ere ahalegina egin du ahoskera zaintzen eta “gipuzkera” edo “bizkaiera” jasoan egiten. Tarteka badira, hala ere, estandarretik euskalkira jauzika aritzen direnak, diskurtsoa aurrera doan heinean.
- Oraindik neurri handiegian erabiltzen dituzte makulu desegokiak, batere funtzio diskurtsiborik ez dutenak.
- Hizkuntzaz gairako komunikazioari dagokionez, saiatu dira espazioa betetzen hartzailearengana hurbiltzeko, baina, oro har, estatikoak dira, eta saiatu dira, bestalde, gorputza erabiltzen diskurtsoari laguntzeko, baina oraindik nabarmena da alderdi honetan dagoen hutsunea: isilune esanguratsurik ez dute egiten (hau da, ez dira isiluneaz baliatzen zerbait garrantzitsua esan aurretik), begiradak ez ditu hartzaile guztiak besarkatzen eta leku finko batera begiratu ohi dute.
- Testuinguru komunikatiboari ere bigarren aurkezpenean hobeto egokitzen zaio ikaslea. Aurkezpen gehienetan dago hartzaileari egokitzeko baliabide- ren bat edo beste: nabarmenena bigarren pertsonaren erabilera da (“azalduko dizuet” bezalako esamoldeak ugariak dira). Horrez gain, adibide esanguratsuek erabiltzen eta jakintza konpartituei erreferentzia egiten (beste solaskideen esanak norbere diskurtsora ekartzeko ahalegina) saiatu denik ere bada.
- Oraindik ikasleek arazoak dituzte gai nagusiak eta azpi-gaiak elkarrekin lotu eta gaitik gairako jauzia egiteko; batzuetan, atal nagusiak bata beste-

aren atzetik doaz, baina ez da berbalizatzen noiz bukatu den bat eta noiz hasten den hurrengoa.

Oro har, argi ikus dezakegu aurretetik bigarren aurkezpenera ikasle gehien solasaldian hobekuntzak egon badaudela eta gehiengo batek ahozko aurkezpenaren teknika barneratu duela; hau da, jakin badakite zer eta nola egin behar duten, baina teknikoki zuzena den aurkezpen batetik esanguratsua eta egokia den ahozko aurkezpen baterako jauzia oraindik egin gabe dago.

6. ONDORIO OROKORRAK

Sarreran esan dugu gizarteak eskatzen dituela ahozko hizkuntza kalitatez erabiltzen duten herritarrak eta horren ardura, neurri batean, hezkuntza sistemari dagokiola. Testuinguru horretan ikusi dugu ahoz ondo komunikatzen diren profesionalak behar badira unibertsitateak ere ahozko komunikazioari dagozkion gaitasunak lantzen jarraitu beharko duela. Halaber, azaldutako esperientziak erakutsi digu testu-genero baten lanketa sistematikoak emaitza onak ematen dituela, oro har, eta aurretetik ondoretutara badagoela garapenik. Nabarmendu nahi genuke aurrerapauso handienak komunikazio egoerari erantzuterakoan, testua egituratzerakoan eta gaien arteko loturak egiterakoan edota euskarrien erabileran gertatzen direla eta, aldiz, oraindik ere ikasleak lotuegi daudela idatzizko euskariari (dela euskari elektronikoen bidez, dela gidoiaren bidez) edota kostatu egiten zaiela “bikaintasun”era hurbiltzea hitzez gaindiko komunikazioari dagozkion aspektuetan. Halaber, Dolz eta Schneuwlyk (1998) dioten moduan, ez da guztiz erreala azken ekoizpenak ikasi dutenaren inguruan ematen digun informazioa, ikasketa prozesua gertu izateak bi ondorio nagusi izan baititzake: batetik, ikasitakoak memorian oso gertu daude eta horrek hizkuntza-ekintza “karikatuta” bihur lezake; eta bestetik, ezagutza berriak oraindik ere nahikoa barneratu gabe egon daitezke konplexutasun handia duen ekintza bat aldatzeko. Horrek azal ditzake, esate baterako, ikasleen ahozko aurkezpenetan bukaera emateko agertzen diren “galderarik badago/ez/ba bukatu dut” moduko formula arinak edota berrartze eta birformulazioak egiteko ikasleek izan ohi dituzten zailtasunak. Interesgarria litzateke graduko beste ikasturte baten egindako jendaurreko ahozko aurkezpenen bat aztertzea egiazko inpaktua ikusi ahal izateko.

Esperientzia honetan, benetako behar komunikatiboetatik abiatu da (oraingo eta etorkizuneko beharrak) eta ikasleari tresnak eskaini zaizkio (ereduak, txantiloak, errubrika...) eginkizun komunikatibo horiei erantzuteko. SDaren egiturak lagundu du ahozko jendaurreko aurkezpenen lanketa sistematikoki antolatzen eta ordenatzen. Dispositibo honen izaera modularrak, gainera, errazten ditu egin beharreko berrantolaketak eta moldaketak. Prozesuaren dinamikotasunari eta sortzen diren behar berriei erantzuteko baliabide egokia delakoan gaude; abiapuntua testu-generoaren eredu didaktikoa eta ikasleen aurretikuak izateak, gainera, ahalbidetzen du beharrei zehatz erantzutea.

Bestalde, ikusi dugu gogoetan oinarrituriko lanketa moduak errazten duela ikasleen aniztasunari erantzutea. Ikaslea bere ekoizpenaren jabe egiten den eta

bere buruaren gaineko gogoeta bultzatzen den unetik gai da identifikatzeko zeintzuk diren bere hizkuntza jardunaren indarguneak eta hobetzekoak, horrek fokoa bakoitzaren praktikarengan jartzen du eta batzuen eta besteen beharrei erantzuteko tresnak eskaini ahal dira. Unibertsitatean jatorri eta ibilbide askotarikoak dituzten ikasleak daude, bai ikuspegi soziolinguistikotik, bai ahozko komunikazioaz jaso duten prestakuntzari dagokionez, eta guztiei erantzuteko aukera garrantzitsua da.

Bukatzeko, azpimarratu nahi genuke esku-hartze didaktikoaren zeharkakotasunak ikasleen hizkuntza eta komunikazio gaitasunen garapenean eta ebaluazioan duen eragina. Zeharkakotasun horrek eskatzen die ikasleei ahozko aurkezpenen lanketa “hizkuntzako” materiarekin bakarrik ez lotzea eta euren eguneko jardunean aplikatu beharreko baliabide gisa ulertzea.

7. BIBLIOGRAFIA

- ALEGRIA, A. (2009). Errepikapen lexikoak ahozko modalitatearen koherentzia sintaktikoren ikuspegitik aztergai. *Euskera*, 54, 2-1. zatia, 771-809. Sarean: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/74640.pdf> [Azken kontsulta: 2011-11-11].
- ARREGI MURGIÓNDO, X.; BILBATUA PÉREZ, M.; SAGASTA ERRASTI, M.P. (2004). Innovación curricular en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de Mondragón Unibertsitatea: diseño e implementación del perfil profesional del Maestro de Educación Infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 18 (1), 109-129.
- BAJTIN, M.M. (1929/1995). *Estética de la creación verbal*. Madrid: Siglo XXI.
- BRONCKART, J.P. (1991). Quelques éléments de réflexion et de conceptualisation à propos de l'oral. *Pédagogie de l'oral*. Rolle: Ofiamt.
- (1996). *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*. Lausanne: Delachaux et Niestlé.
- DOLZ, J.; GAGNON, R. (2008). Le genre du texte, un outil didactique pour développer la langue oral et écrit. *Pratiques*, 137/138, 179-198.
- ; SCHNEUWLY, B. (1997). Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de un experiencia realizada en la Suiza francófona. *Textos*, 11, 77-98.
- ; — (1998). *Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux genres formels à l'école*. Paris: ESF Éditeurs.
- ESTEVE, O. (2009). La formació permanent del professorat des de la pràctica reflexiva. *Articles de la Didàctica de la Llengua i la Literatura*, 49, 47-62.
- ; ALSINA, À. (2010). Hacia el desarrollo de la competencia profesional del profesorado. In O. Esteve, K. Melief, & À. Alsina (Eds.), *Creando mi profesión: una propuesta para el desarrollo del profesorado* (pp. 7-18). Barcelona: Octaedro.
- FREUDENTHAL, H. (1991). *Revising mathematics education*. Dordrecht: Kluwer Academic Publishers.

- GARCIA-AZKOAGA, I. (2008). Ahozko azalpena unibertsitatean: ezagutzak ebaluatzeko tresna bat baino gehiago. In Itziar Idiazabal eta Ines Garcia Azkoaga (Eds) *Ahozko hizkuntza: euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*, 176-194. Sarean: <http://testubiltegia.ehu.es/> [Azken kontsulta: 2011-11-11].
- GOFFMAN, E. (1987). *Façons de parler*. Paris: Minuit.
- LARRINGAN, L.M.; IDIAZABAL, I. (2008). Ahozko hizkuntzari antza hartzeko hiru gogoeta. In *Euskalgintza XXI. mendeari buruz. XV. Biltzarra*, Iker-19, Bilbo: Euskaltzaindia. Sarean erabilgarri: <http://www.euskaltzaindia.org/dok/ikerbilduma/70445.pdf> [Azken kontsulta: 2011-11-11].
- MARTÍNEZ, A. (2004). *Cómo preparar una exposición oral en todas las áreas de secundaria*. Iruña: Gobierno de Navarra.
- RUIZ BIKANDI, U. (2007). La autoobservación en clase de lengua como mecanismo colectivo de formación. El discurso protector. *Cultura y Educación*, 19 (2), 165-181.
- PÉREZ LIZARRALDE, K.; GARRO, E. (2010). Jendaurreko ahozko aurkezpenen lanketa Irakasle Ikasketetako ikasleekin. *HIK HASI*, 25. *Monografikoa*, 72-79.
- SAGASTA ERRASTI, M.P. (2001). "Hizkuntzen curriculum bateratua: zenbait zertzelada". *HIK HASI*, 8: 22-29 ISSN: 1135-4690. Donostia. Gipuzkoa: XANGORIN.
- ; BILBATUA PEREZ, M. (2006). La Titulación de maestro en la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad Mondragón: Proceso de innovación educativa. *Educación Siglo XXI*. Murcia: Universidad de Murcia, 77-95.
- ; PÉREZ LIZARRALDE, K.; PEDROSA, B.; GARRO, E. (2010). Eleaniztasun gehiagarriaren erronka: HUHEZIKO hizkuntza plangintza Irakasle Ikasketetan. *Bat Soziolinguística aldizkaria*, 75, 59-72.
- SAINZ OSINAGA, M. (2002). *Azalpenezko testu entziklopedikoaren azterketa eta didaktika*. Donostia: Erein.
- ; PÉREZ LIZARRALDE, K. (2004). Ikerketa-jarduera, hizkuntzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko, XI. Jardunaldi pedagogikoak: Ahozkotasuna, Ikastolen Elkartea, 129-173.
- SCHNEUWLY, B. (2008). Jendaurreko hizketaren irakaskuntza: hurbiltze sozio-historikoa. In Itziar Idiazabal & Ines Garcia Azkoaga (Eds) (2008) *Ahozko hizkuntza: euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan*, UPV - EHU, 137-147. Sarean: <http://testubiltegia.ehu.es/> [Azken kontsulta: 2011-11-11].
- SCHÖN, D. (1983). *The Reflective Practitioner. How Professionals Think in Action*. Londres: Temple Smith.
- VIGOTSKY, L.S. (1978). *Mind in society. The development of higher psychological processes*. Cambridge (Mass): Harvard University Press.